

ERAKUNDEA

Edateko uraren hornidura eta hondakin-uren saneamendua dira Mankomunitatea sortu zenetik, hau da, 1982tik, ematen dituen bi zerbitzuak.

Hornidura

Egun, urez hornitzeko hiru iturri nagusi ditugu: Artetako iturburua, Eugiko urtegia eta Itoizko urtegia, Nafarroako Ubidearen bidez. Iturri horietako bakoitzetik heltzen den ura edateko uren araztegi batean tratatzen da, gizakiok edan ahal izateko:

- Artetako iturburua - Egillorko EUTE
- Eugiko urtegia - Urtasungo EUTE
- Itoitz-Nafarroako Ubidea - Tiebasko EUTE

Herritarrak urez hornitzeko sistema honek oinarri du hornitzeko sare-bilbe konplexua: 1.498 kilometro hodi eta 140 biltegi ditu. Hartara, Iruñerriko herri guztiek ziurtatuta dute ura izatea, bai kantitateari eta bai kalitateari dagokionez.

Saneamendua eta arazketa

Iruñerriko biztanleen % 95ek sortzen dituzten hondakin-urak Arazuriko Hondakin Uren Araztegira bideratzen dira (Iruñetik 3 kilometrora), 1.738 kilometro dituen hodi biltzaileen edo kolektoreen sare baten bidez.

Araztegi hori 1990ean jarri zuten martxan, eta 1999an handitu. Han, hondakin-urak araztu egiten dituzte, tratamendu fisikoa eta biologikoa eginda. Era berean, arazte-prozesuan sortzen diren lohiak tratatu egiten dira, gero nekazaritzan eta lorezaintzan erabili ahal izateko; eta lohi horien digestio-prozesuan sortzen den biogasa energia termiko eta elektriko bihurtzen da.

Uraren Ziklo Integralari dagozkion jarduerak zuzenean egiten dituzte Mankomunitateko langileek.

Birzikla daitekeen materia bizigabea ahalik eta gehiena balioztatzea eta berreskuratzea etxean modu eraginkorrean sailkatzearen mende dago. Horretarako, gertutasun, erosotasun eta eskuragarritasun errazaren printzipioei jarraituz jarri dira edukiontziak.

Kaleetan hondakinak biltzeko dauden puntu guztiek lau edukiontzi mota hauek dituzte: gai organikoak biltzekoa, ontziak biltzekoa, papera eta kartoia biltzekoa, eta gainerakoak biltzekoa. Gainera, biltzeko bi puntutatik batek beira botatzeko iglu erako edukiontzi espezifiko bat du.

Gai organikoak 5. edukiontziaren bidez biltzeko berriazko bilketa berria 2013aren amaieran jarri zen martxan, Barañainen, I. fasean. II. fasea, berriz, 2014ko urrian abiarazi zen, eta bilketa-mota hori Iruñeko zenbait auzotara eta bi herritara eraman zuen: Iturrama, Mendebalde, Ermitagaña, Donibane eta Etxabakoitz auzotara, eta Zizur Nagusia eta Zizur Txikia herrietara. 2015ean, bilketa-zerbitzu hau Iruñerriko hiri-ingurune osora hedatu zen (III. fasea). 2016ko abuztua eta urria artean, gai organikoen bilketa bereiziaren IV. fasea gauzatu zen, Iruñerrian biztanle-kopuru txikiena duten 229 herrietan. Laugarren fase horretako herri bakoitzari konpostajea eskaini zitzaion

gai organikoak tratatzeko modu gisa, baina haietako batzuetan bosgarren edukiontzia ere kokatu zen. Laugarren fase hori gauzatuta amaitutzat eman zen gai organikoen bilketa bereizia ezartzea.

2018ko ekainean proba pilotu bat hasi zen Artika Berrian eta Azpilagañan, gai organikoak bereiz biltzea hobetzeko helburua izanda. Hain zuzen, xede nagusia da gai organikoen bilketa bereizia handitzea da, egun oker botatzen diren hondakin organikoak -batez ere, gainerakoen edukiontzira- edukiontzi marroira bideratuta. Gai organikoetarako edukiontziak eta gainerakoak edo errefusa botatzekoak txartel elektronikoen baten bidez irekitzen dira. Txartela kontratu bakoitzari lotuta dago, eta irekitze bakoitzean erregistratuta gelditzen dira espazio- eta denbora-koordinatuak.

2021eko udazkenean, edukiontziak elektronikoki zabaltzeko sistema Iruñerrian hedatzen hasi zen IM. Urri eta azaro artean, sistema berria Mendillorin, Sarrigurenen, Zabalgunean, Beloson, Lezkairun, Erripagañan, Arrosadian eta Mutiloak ezarri zen, eta aurreikusita dago 2023a arte aritzea hedatzen. Gai organikoak eta gainerakoen frakzioa jasotzeko edukiontziak helbide bakoitzari lotuta dauden txartel elektronikoen edo mugikorrerako *app*-aren bidez ireki behar dira.

Datuen Babeserako Espainiako Agentziak (AEDP) ebazpen bat kaleratu zuen abuztuan, eta haren arabera aldi baterako debekatu zion IMri etxebizitza batek txartel bidezko edukiontzi bat zabaltzen zuen aldi-kopuruari buruzko informazioa biltzea. Agentzia horrek azaldu zuenaren arabera, arrazoiak izan zen IMk biltzen zituen etxebizitza bakoitzeko irekitze-datuak ez zirela erabiltzen ari hondakinak sortzeagatik ordainketa bat ezartzeko ez eta jokabide desagokiak zigortzeko ere. Hortaz, ebazpenak ez zuen zalantzan jartzen ez datu pertsonalak tratatzea ez eta erabilitako bilketa-sistema. Horren guztiaren ondorioz, IMk irekitze-datuak erregistratzeari utzi zion eta edukiontzi berriak jarri gabe zeuden Iruñerriko tokietan edukiontzi horiek kokatzea atzeratu zuen.

Bio-hondakinak berreskuratzeari dagokionez, etxeko eta auzoko konpostajearen, gai organikoak edukiontzietan gaika biltzearen eta hondakin berdeak kudeatzeko lan egiten jarraitu zen. Landa-eremuan, hondakin organikoak *in situ* edo bertan kudeatzeko politikak jarraipena izan zuen, eta, gainera, bere garaian hondakin organikoak biltzeko 5. edukiontzia jarri zen baina orain erabilera hori egokia ez izateaz gain ingurumen-kostu handia duela ulertu den landa-herrietara zabaldu zen. Hori dela-eta, herri horietan 0 kilometroko kudeaketa egitearen alde egin zen, hau da, bildu gabe kudeatzearen alde.

Beste alde batetik, etxean sortzen diren hondakin bereziak gaika biltzeko helburua duten instalazioak dira garbiguneak. Bi mota daude: finkoak (3 dira, 2 hipermerkatuetako aparkalekuetan daude eta hirugarrena Burlatan); eta mugikorrak, aurretik ezarrita dagoen maiztasunarekin eta etengabe hainbat herri eta auzotara joaten diren 2 ibilgailu.

Zerbitzu hau osatzeko, bestelako bilketak ere egiten dira: tamaina handikoak, pilak, inaste hondakinak... Bestalde, “atez ateko” zerbitzua dago Iruñeko Alde Zaharreko saltegietan kartoia eta beira biltzeko.

Bilketen plangintza, zerbitzuaren kontrola, ikuskatze-lana, ibilgailuak eta edukiontziak eskuratzea, eta bilketa berezien diseinua IZSAren langileekin egiten da, eta gauzatzen duen enpresa Fomento de Construcciones y Contratas da, IZSArekin sinatuta duen kontratuaren arabera.

Tratamendua

Dagokion edukiontzian sartu eta gero, hondakinak Gongorako Hiri Hondakinak Tratatze Zentrora eramaten dira. 1992ko ekainean jarri zuten martxan zentro hori, eta hondakinak tratatzeko bi eremu ezberdin ditu: hautaketa-planta eta zabortege kontrolatua.

Hautaketa-plantak birzikla daitezkeen produktuak hartzen ditu, eta gero multzoka sailkatzen dira. Hartara, gaika bereizita daudenean, Ecoembesek eta Ecovidriok izendatutako enpresetara bideratzen dira eta han produktu berriak sortzeko lehengai moduan aprobetxatzen dituzte.

Birziklatu ezin diren hondakinak, edukiontzi berdeetara bota direnak, isurketa-gunera eramaten dira. Han, aldian behin, lurperatu egiten dira, gai organikoen hartzidura anaerobikoa errazteko. Erauzte- eta bideratze-sistema bati esker, sortzen diren gasak energia gisa baliatu ahal dira.

Etxebizitzetako hondakinetako gai organikoen frakzioaren tratamendua Caparroson (Nafarroa) dagoen enpresa batean egin zen.

2018an, IMko Hondakinen Arloko taldeak Iruñerrian tratamendurako ingurumen-zentro bat sortzea erabaki zuen, gai organikoen, gainerakoen eta ontzien frakzioak kudeatzeko. Zentro hori Iruñerriko industria-lurzoruan kokatuko litzateke, bateragarria izango litzateke ingurunearekin eta ahalik eta eragin txikiena izaten ahaleginduko litzateke. Kokalekua ezartzeko orduan, 18 kokapen aztertu ziren eta haietatik 7 jo ziren egokientzat. Azkenik, aukeratu zen kokalekua Garraioaren Hiria izan zen (4. fasea). IMko gobernu-organismoek planteamendu teknikoa baliozkotu eta gero, 2021ean, obra-zuzendaritzaren laguntza teknikoa lizitatu eta kontratatu da. Gainera, Iruñerriko Ingurumen Zentroaren proiektua, obra eta martxan jartzea lizitatu eta esleitu da, eta horrek ahalbidetuko du ezabatu beharreko etxeko hondakinen kantitateak murriztea eta zabortegeien legeria betetzea, zeinak behartzen duen, zabortegeira bota aurretik, hondakinei aurretiko tratamendua egitera.

Hiri continuumeko udalerrien artean zeuden mugikortasun-arazoak konpontzeko asmoarekin, Mankomunitateak Eskualdeko Hiri Garraioa kudeatzeko ardura hartu zuen.

Zerbitzu berriaren funtsezko xedea izan da hiri eta hiriarteko lineetan zeuden gainjartzeak bateratzea. Horren ondorioz, Iruñerriko auzoen eta udalerrien arteko lotura hobetu ahal izan da, eguneko 25 lineen eta gaueko zerbitzuko 10 lineen bidez, eta tarifen sistema homogeneoa finkatu ahal izan da.

2023an, Eskualdeko Hiri Garraiorako sareak 248,57 kilometro (eguneko zerbitzua) eta 135,46 kilometro (gaueko zerbitzua) zituen, eta 557 geraleku. Autobus-flota 159 ibilgailuk osatzen zuten (horien % 100 erraz sartzeko modukoak dira, “zoru baxukoak”). Autobus horiek, batez beste, 7,42 urte zituzten.

Zerbitzu hau emateko zeharkako kudeaketaren formula erabiltzen da. Mankomunitateak zerbitzuaren plangintza eta kontrola egiten ditu, eta ‘Transports Ciutat Comtal’ enpresak zerbitzua ematen du, dagokion kontzesio-kontratuan ezarrita dauden baldintzen arabera.

Iruñean eta Iruñerrian taxi-zerbitzua hobetzeko eta legedia testuinguru berrira egokitzeko asmoz, 2005ean, Nafarroako Parlamentuak taxiaren gaineko foru-legea onartu zuen (9/2005 Foru Legea, uztailaren 6koa). Lege horren bidez, zerbitzua batera emateko eremu bat sortzea bultzatu zen (eremu horrek Iruñerriko 19 udalerrri hartzen ditu), eta zerbitzua kudeatzeko ardura Iruñerriko Mankomunitateak hartu zuen. Legeak finkatzen zituen beste neurrietako bat taxi-gidaria izateko baimen gehiago sortzea zen: 2006an Mankomunitateak deialdia egin zuen, eta horren bidez beste 90 baimen gehiago eman ziren eta lehendik zeuden 223ei gehitu zitzaizkien.

2023an, Iruñerrian taxi-zerbitzua batera emateko lurralde-eremua 30 udalerririk eratzen zuten. Gainera, 2023an, lehendik zeuden 315 lizentziei eutsi zitzaien.

Iruñerriko Ibai Parkea

2000. urteko urtarilean, Iruñerriko zenbait udalek, Nafarroako Gobernuarekin eta NILSA sozietate publikoarekin batera, Iruñerriko Ibai Parkearen Partzuergoa sortu zuten. Beren ibaien uberkak lehengoratzea eta, hartara, ibai-inguruen natura-balioa berreskuratzean aurrera egitea izan zen helburua. 2003ko udaberrian parkea inauguratu zuten eta Partzuergoak kudeatzea onartu zuen. Kudeatze horrek lan osagarriak egitea eta azpiegiturak konpontzea hartu zuen.

2006an, Uraren Ziklo Integralarekin bat zetorren ikuspegia emateko asmoz, Partzuergoak Ibai Parkearen kudeaketa 2007tik aurrera Iruñerriko Mankomunitatera eskualdatzea erabaki zuen. Erabaki hori Partzuergoa desegitearekin batera etorri zen.

Parkea handitzen joan da zenbait fasetan eta, hala, 2023an 41 kilometroko pasealekua zuen. Zehazki, 2023an, Elortz ibaiaren zati berri bat sartu zen parkearen barnean, Zizurko eta Galarko zendeetan, 6,7 kilometroko luzerarekin.

Ezkabako Eskualde Parkea

Ezkabako Eskualde Parkeak gutxi gorabehera 1.000 hektareako hedadura du, eta bere garapen-eremuak zortzi udalerri hauetako lurak hartzen ditu: Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Txulapain, Ezkabarte, Atarrabia, Iruña eta Uharte. Udal horiez gain, Eskualde Parkea sustatzean kontzeju hauek ere parte hartu dute: Artika, Berriogoiti, Aitzoain, Untzu, Arre, Azotz, Orrio, Zildotz eta Orikain.

2022aren bukaeran Ezkabako Eskualde Parkea onartu ondoren, 2023an, bilerak hasi ziren Parkea eratzen duten toki-erakundeekin, finantzaketa-sistema eta zerbitzu berri hau kudeatzeko prozedura ezartzeko helburuarekin.

Nafarroako Gobernuarekin egindako lana nabarmendu behar da, elkarrekin garatzeko Ezkabako Suteen Plana, zeinak modu globalean aztertuko duen gune hori, toki-erakunde guztiek dauzkaten sute-planekin koordinatuta.